


Euskal AEko BPGk urte arteko %1,1eko murrizketa izan zuen 2013ko hirugarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoaren aldean aldaketarik ez (%0,0)

Euskal AEko BPGk urte arteko %1,1eko tasa negatiboa izan du 2013ko hirugarren hiruhilekoan, aurrekoan baino ehuneko lau hamarren hobeto, Eustaten datuen arabera. Espainiako ekonomiaren beherakada %1,2 izan zenez INE-ren zenbatespenaren arabera, hamarren bat gutxiago murriztu da Euskal AEkoa.

Euskal AEko BPGk hiruhileko artekoan ez du aldaketarik izan (%0,0) 2013ko hirugarren hiruhilekoan. Hiruhilekoen arteko aldakuntza hau Espainiako ekonomiak edukitakoaren (%0,1) hamarren bat azpitik izan da.

1. grafikoa. BPG m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



	IH 10	IIR 10	IIIR 10	IVH 10	IH 11	IIR 11	IIIR 11	IVH 11	IH 12	IIR 12	IIIR 12	IVH 12	IH 13	IIR 13	IIIR 13
Euskal AE	-0,6	0,6	0,9	0,7	0,6	0,5	0,3	-0,3	-1,1	-1,7	-2,0	-2,0	-1,9	-1,5	-1,1
ESTATUA	-1,4	-0,1	0,2	0,5	0,6	0,3	0,0	-0,6	-1,2	-1,6	-1,7	-2,1	-2,0	-1,6	-1,2
EUROPAKO BATASUNA-27	1,0	2,2	2,4	2,3	2,6	1,8	1,5	0,9	0,1	-0,3	-0,5	-0,7	-0,8	-0,2	
EURO EREMUA-17	1,0	2,2	2,2	2,2	2,6	1,7	1,4	0,7	-0,2	-0,5	-0,7	-1,0	-1,2	-0,6	
USA	1,6	2,7	3,0	2,8	2,0	1,9	1,5	2,0	3,3	2,8	3,1	2,0	1,3	1,6	1,6

Iturria: Eustat - Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak - eta Eurostat

Eskaintzaren ikuspuntutik BPGren urte arteko murrizketa lau jarduera-sektore handiei zor zaie. Bai Lehen Sektorean, bai Industrian, bereziki Eraikuntzan jaitsi da jarduera-maila. Zerbitzuetan gauza bera gertatzen da; denetan, lehen sektorean izan ezik, beherakadak apalagoak izan dira aurreko hiruhilekoak baino.

Lehen Sektoreak bilakaera negatiboa izan du urte artean (%-1,8), eta positiboa hiruhileko artean (%+25).

Industriak zortzigarren hiruhilekoz jarraian jokaera negatiboa (%-1,9) izan du urte artean; aurreko hiruhilekoan bezalaxe, hiruhilekoen arteko positiboa (%0,1) izan du. Hiruhilekoen arteko positiboa, eta urte arteko beherakada zortzi hamarrenez arindu da.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2011	2012	2012				2013		
			I	II	III	IV	I	II	III
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	7,9	8,7	15,8	3,2	-2,0	16,3	-5,0	-1,6	-1,8
INDUSTRIA ETA ENERGIA	1,6	-3,7	-3,2	-4,1	-4,2	-3,8	-3,0	-2,7	-1,9
Manufaktura-industria	3,0	-3,7	-2,4	-4,5	-4,4	-4,2	-3,2	-2,5	-1,9
ERAIKUNTZA	-7,9	-8,2	-9,3	-8,6	-7,7	-7,1	-6,8	-6,6	-5,2
ZERBITZUAK	0,9	-0,4	0,5	-0,1	-0,7	-1,0	-1,0	-0,7	-0,4
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-0,6	-1,1	-0,3	-1,0	-1,3	-1,9	-2,0	-1,6	-1,4
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	3,5	0,4	2,6	1,4	-0,9	-1,7	-1,7	-0,4	-0,1
Gainerako zerbitzuak	0,4	-0,3	-0,2	-0,4	-0,3	-0,2	-0,2	-0,1	0,0
Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	0,3	-1,7	-1,1	-1,7	-2,1	-2,0	-1,9	-1,6	-1,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	-0,2	-1,1	-0,3	-1,1	-1,2	-1,6	-0,9	-0,5	-0,6
BPGda merkatuko preziotan	0,3	-1,6	-1,1	-1,7	-2,0	-2,0	-1,9	-1,5	-1,1

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eraikuntza gutxiago murriztu da, bai urte artean, bai hiruhileko artean. Urte artean %-5,2, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 1,4 puntu gutxiago; hiruhileko artean %-0,2.

Zerbitzuen jarduera osoak %0,4 beherakada erakusten du, bai hiruhileko artean, bai urte artean.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2012				2013		
	I	II	III	IV	I	II	III
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	-2,2	-27,5	25,3	31,0	-20,1	-24,9	25,0
INDUSTRIA ETA ENERGIA	-0,9	-0,2	-0,8	-1,9	-0,2	0,1	0,1
Manufaktura-industria	0,6	-1,9	-1,2	-1,7	1,5	-1,2	-0,5
ERAIKUNTZA	-2,9	-3,1	-1,6	0,3	-2,6	-2,9	-0,2
ZERBITZUAK	0,1	0,1	-0,6	-0,6	0,1	0,5	-0,4
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-0,2	-0,5	-1,0	-0,2	-0,3	-0,2	-0,7
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	1,7	0,2	-0,1	-3,4	1,7	1,4	0,2
Gainerako zerbitzuak	-0,6	0,4	-0,7	0,7	-0,6	0,4	-0,5
Oinarrizko prezioei ERANTSITAKO BALIO GORDINA	-0,4	-0,4	-0,6	-0,6	-0,4	-0,1	-0,1
Produktuen gaineko zerga garbiak	-2,3	-0,3	0,8	0,2	-1,7	0,1	0,8
BPGda merkatuko preziotan	-0,6	-0,4	-0,4	-0,5	-0,5	-0,1	0,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Urte artean, Zerbitzuen sektoreko hiru azpisektoreetatik bitan tasa negatiboak dauzkagu, eta hirugarrenean aldaketarik ez.

Urte artean Zerbitzuetako jarduera-jaitsierarik aipagarriena **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioan** da, %-1,4, eta ondoren **Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** adarrean, %-0,1. **Gainerako zerbitzuetan** (jarduera profesionalak, finantzetakoak eta aseguruak, besteren artean) ez dago aldaketarik.

Hiruhileko artean hazkunderik handiena **Administrazio Publikoa, Hezkuntza, Osasungintza eta Gizarte zerbitzuak** adarrean dugu, %0,2. **Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioan** %-0,7 eta **Gainerako zerbitzuetan** %-0,5.

Sektore-agregatuen joerak Balio Erantsiaren urte arteko bilakaera negatiboak ekarri ditu, %-1,1 urte artean eta %-0,1 hiruhileko artean. Urte artekoa ehuneko bost hamarren gutxiagoz murriztu da 2013ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Hiruhilekoen artekoan aurrekoko jaitsiera-erritmo bera daukagu.

3. taula. BPG m / p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE. %

	2011	2012	2012				2013		
			I	II	III	IV	I	II	III
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	-0,4	-1,2	-0,3	-1,8	-1,3	-1,4	-1,2	-1,1	-1,3
Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE	-0,7	-1,3	-0,8	-1,8	-1,1	-1,5	-1,7	-0,9	-1,3
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	0,6	-0,8	1,5	-1,7	-2,1	-1,1	0,5	-2,1	-1,1
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-2,3	-6,3	-6,6	-6,7	-5,6	-5,9	-4,7	-4,0	-3,8
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	2,9	-5,5	-5,2	-6,0	-5,2	-5,7	-2,8	-1,1	-0,8
Gainerako kapital-eraketa gordina	-4,4	-6,6	-7,2	-7,0	-5,8	-6,0	-5,5	-5,3	-5,1
BARNE-ESKARIA	-0,9	-2,4	-1,8	-2,9	-2,3	-2,4	-2,0	-1,8	-1,8
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	0,9	-3,3	-2,3	3,4	-5,6	-8,1	-6,7	2,9	5,5
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	-0,9	-4,2	-3,3	1,1	-5,8	-8,4	-6,6	2,3	4,0
BPGda merkatuko preziotan	0,3	-1,6	-1,1	-1,7	-2,0	-2,0	-1,9	-1,5	-1,1

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eskariaren ikuspuntutik, berriz ere aurreko hiruhilekoan bezala, Barne eskariaren bilakaera negatiboa eta kanpo-sektorearen dinamismoa batera dauzkagu, hortik datorrelarik bere ekarpen positiboa BPGren hazkundeari. Ondasun eta zerbitzuen esportazioak eta inportazioak, bai urte artean, bai hiruhileko artean, bilakaera positiboa dute.

Familia-etxeen azken kontsumoaren gastuan (Kontsumo pribatuan), aurreko hiruhilekoetan bezala desazelerazioa dago: %1,3ko murrizketa aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Jaitsiera aurreko hiruhilekoa baino lau hamarren handiagoa da. Hiruhileko artean, aldakuntza-tasa negatiboa da, aurreko hiruhilekoan %0,0 izan zelarik.

Kontsumo publikoan (Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua) tasa negatiboak berriz ere, baina bigarren hiruhilekoak baino apalagoak. Urte artean %-1,1 eta hiruhileko artean %-0,3.

Administrazio Publikoen Azken Kontsumo Gastuak eta Familia-etxeen Azken **Kontsumo Gastuak** baturik **Azken Kontsumo Gastuaren** %1,3ko jaitsiera ekarri dute. Aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,3ko jaitsiera dugu.

Kapital eraketa gordinean (Inbertsioan) jaitsiera dago berriz urte artean (%-3,8), gutxixeago aurreko hiruhilekoan (%-4,0) baino. Urte arteko jaitsiera-erritmoa apaltzeak %0,6ko hiruhileko arteko hazkundera ekarri du. Kapital Eraketa Gordinaren bi osagaietan, ekipo-ondasunetan eta eraikuntzan, tasak negatiboak dira urte artean. Hiruhileko artean, ekipo-ondasunetako inbertsioaren bilakaera (%0,0) okerragoa da eraikuntzari lotutakoarena (%0,9) baino.

Barne eskariak, zeina osatzen baitute Azken Kontsumoko Gastuak eta Kapital Eraketa Gordinak, murrizte-mailari heltzen dio, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Urte artean %1,8ko jaitsiera dago hiruhileko honetan, aurreko hiruhilekoan bezalaxe.

**4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-
tasak. Euskal AE. %**

	2012				2013		
	I	II	III	IV	I	II	III
AZKEN KONTSUMOKO GASTUA	0,6	-1,0	-0,2	-0,8	0,8	-1,0	-0,3
Etxeguneen azken kontsumoko gastua eta EZMAEDE	0,0	-0,9	0,2	-0,9	-0,1	0,0	-0,3
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	2,7	-1,7	-1,4	-0,7	4,4	-4,3	-0,3
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	-2,5	-1,2	0,4	-2,8	-1,2	-0,4	0,6
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	-2,5	-0,7	-0,4	-2,2	0,5	1,0	0,0
Gainerako kapital-eraketa gordina	-2,6	-1,3	0,8	-3,1	-2,0	-1,1	0,9
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	-0,3	-2,5	-0,7	-4,8	1,3	7,4	1,8
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	0,4	-3,3	-0,1	-5,7	2,6	5,9	1,6
BPGda merkatuko preziotan	-0,6	-0,4	-0,4	-0,5	-0,5	-0,1	0,0

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: EUSTAT. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kanpo-sektoreak berriz ere egin dio ekarpen positiboa BPGren bilakaerari. Kanpo-saldoa positibo egin dute ondasun eta zerbitzuen esportazioen urte arteko bilakaera positiboak, %5,5, eta inportazioen %4,0koak.

BPGren jaitsierak, behera eragin dio enplegu-mailari, **Dedikazio Osoko Baliokidetzako Lanpostuetan neurturik**. Urte artean enplegua %2,0 jaitsi da eta %0,3 hiruhileko artean.

Enplegua, urte artean eta hiruhileko artean, jarduera-adar guztietan galdu da. Lehen sektorean, %4,3 eta %1,2. Industria %4,0 jaitsi da urte artean, erritmoa moteltzen delarik; aurreko hiruhilekoaren aldean %0,3 jaitsi da. Eraikuntzaren enpleguan jaitsierak areagokoak dira Industrian baino, aurreko hiruhilekoan bezalaxe. Zerbitzuetan urte arteko eta segidako zortzigarren jaitsiera dago, %0,5. Hiruhileko artean, berriz ere, tasa negatiboak, %0,3.

Lurraldeetako BPGri begiratzuz gero, urte artean Arabak du jaitsierarik handiena, %1,3; Gipuzkoan eta Bizkaian %1,0. Hiruhileko artean, Araban %0,3ko jaitsiera, Bizkaian %0,1; Gipuzkoan %0,3 hazi.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko datu-bankua